

# SIMON BLOOM

Grabitatearen zaindaria

MICHAEL REISMAN



ELHUYAR  
ediz.10ak

ZzL

## ERREALITATEA ALDATZEN

Simonek astronauten posterrari begiratu zion: Ilargiaren gainazalean boteka ari ziren. Ilargiak Lurraren grabitatearen seirena duelako egin zezaketen hori. Ondoren, Liburuko zirriborro haietara itzuli zen.

—Egin ote nezake nik hori? —galdetu zion bere buruari ozen.

Erantzuna izango balitz bezala, Liburua zurrumurruka hasi zen. Simon konturatu zen era bakarra zegoela hori jakiteko. Eztarria garbitu zuen, sinbolo zuzenak aurkitu zituen, eta ozen irakurri. Hitzek zentzugabeak ematen zuten.

Zurrumurrua bat-batean eten zen. Simonek ingurura begiratu zuen, eta kopeta ilundu: ez zen mirarizko aldaketarik gertatu errealitatean. Orduan, konturatu zen gorputza desberdin sentitzen zuela: ematen zuen norbaitek sorbaldeetatik beherantz bultzatzeari utzi ziola.

Txundituta, Simonek oharkabean koskorra igurtzi zuen biseraren azpitik. Bisera gorantz irristatu zitzaion, eta burutik atera zitzaiola sentitu zuen. Harrituta begiratu zuen gorantz, txapela flotatzen ari baitzen. Bueltaka joan zen gorantz, sabaia jo arte, eta errebote egin eta beherantz joan zen emeki.

## HITZAURREA: ONGI ETORRI NIRE KRONIKARA

---

Begiratu zure ingurura. Zer ikusten duzu? Etxean baldin bazaude, hormak, alfonbrak eta altzariak ikusiko dituzu. Kanpoan baldin bazaude, berriz, belarra, eraikinak eta zerua. Baina mundua ematen duena baino askoz konplexuagoa da.

Zer esan nahi dudan horrekin? Hona hemen adibide bat: jendea. Gehienak jendea baino ez dira; baina beste batzuk bereziak dira. Ni berezi horietako bat naiz. Ondoan duzuna ere izan liteke, eta ez zenuke inoiz jakingo.

Zerk egiten gaitu hain berezi? Liburuak.

Ez naiz ari ondo pasatzeko edo eskolan eskatuta irakurtzen ditugun liburu horietaz, ezta denda batean erosi edo liburutegi batean aurkitu ditzakegunez ere. Ez, liburu horiek hain dira garrantzitsuak, ezen maiuskulaz idaztea merezi baitute: *Liburuak* esaten zaie.

Inguruan duzun guztiak —unibertsoan dagoen guzti-guztiak— arauak ditu. Legeak. Eta Liburuak ere legeak dituzte. Legeak azaltzen dituzte. Kontrolatu egiten dituzte. Eta nola egiten duten oso ondo ez badakit ere, unibertsoa ez desegitea ere ziurtatzen dute Liburuak.

Liburuak ezagutzen ditugunok Batasuneko kideak garelako esaten

dugu. Guk mantentzen dugu unibertsoa, Liburuen bidez, goxo-goxo funtzionatzen (sistemako akats batzuk alde batera utzita; adibidez, bisioak eta begira ez gaudenean boligrafoak desagertzea).

Batasuneko kide ez diren guztiak kanpotarrak dira; ez dakite ezer Liburuei buruz, eta ez dute ulertzen unibertsoak nola funtzionatzen duen. Zientzialari kanpotarrek ere —aurkikuntzak egiten edo gauzak asmatzen dituztenak eta saiatzeko direnak azaltzen zerua zergatik den urdina, txoriek nola egiten duten hegan edo txokolatea zergatik den hain goxoa— egiaren zatitxo bat baino ez dakite.


Batasuna atzealdean egon izan da beti, kanpotarrak historian zehar aurrera nola egiten zuten eta zer bilakaera zuten zelatan. Pertsona berezi horietako askok irakasle-plantak egiten dituzte, kanpotarrak begien bistatik ez galtzeko.

Inork ez daki, ezta Batasuneko kide bakar batek ere, nongoak diren Liburuak edo benetan zer diren. Gutako batzuek uste osoa dugu —baita nik ere— Liburuak izaki bizidunak direla, pentsatu egiten dutela eta esku-hartzea izan zutela, nolabait esateko, unibertsoaren sorreran. Gure ustez, Liburuak errespetatu egin behar dira, zaindu, eta telebista aurrean jarri ere bai, saio on bat ematen ari badira.

Batasuneko guztiok ados gaude Liburuak sekretupean gorde behar direla; izan ere, ikaragarritzko boterea dute, eta inon diren gauzarik arriskutsuenak izan daitezke.

Zergatik ari naizen zuri hau guztia kontatzen? Nire lana delako: kontatzailea naiz. Besteek ikusten dutena ikusten dut; besteek entzuten dutena entzuten; besteek sentitzen dutena sentitzen; eta kronika batean idazten dut hori guztia. Baina, kontatzaile guztiei

gertatzen zaien moduan, ezin naiz tartean sartu. Kronika honek, zehazki, istorio hau kontatzen du: nola iritsi zen Liburu bat —bikaina eta suntsitze-ahalmen handikoa— Simon Bloom izeneko hamaika urteko mutiko baten eskuetara, eta nola mutikoak unibertsoa betiko aldatu zuen.



## SIMON BLOOMEK BRISA NABARITU DU

Simon Bloom Ameriketako Estatu Batuetako ipar-ekialdeko muturrean bizi zen, New Jerseyko ipar-ekialdeko muturrean, Bergen konderriko ipar-ekialdeko muturrean, Lawnvilleko ipar-ekialdeko muturrean. Haren logela hegoaldera begira zegoen.

Etxea, bi solairukoa, Jerome kalean zegoen. Kalea bide labur bat zen, eta etxe batzuk aurrerago amaitzen zen; ondoren, kantoia bat zegoen, eta, hura pasata, Van Silas kale itsura heltzen zen. Etxadi batzuk harago, Martin Van Buren ikastetxea zegoen; haurtzaindegitik seigarren mailara bitarteko haurrentzako eskola arrunt bat zen.

Simonek ere arrunta ematen zuen. Ile gaztaina-kolore argia zuen, orin batzuk ohiko neurriko sudurrean (punta irtena zuen, baina ez zen oso ikusgarria), eta begi urdin eta handiak. Altuera normala zuen bere adinerako, baina, bere atsekaberako, seigarren mailako gazteenetako bat zen: ez luke irabaziko altuera-saririk.

Igande itxuraz erabat normal batean, Simon hegan ari zen. Lawnville gainera igo zen hegaka, eta bira oso bat eman zuen airean akrobatikoki. Barre egin zuen haizeak inguratu zuenean; barre egin zuen, jakina, hegan egin eta luxuzko hegazkin bati lotuta joan gabe bira oso bat eman dezakeen edonork arrazoi on bat baitu umore oneko egoteko.

Ondoren, Simonek airean eseki zuen bere burua, eta kontzentratu egin zen. Gorputzak dar-dar egin zion, eta kolorez aldatu zen: mertxika-kolore arrosaxkatik gorri horixkara; ondoren, urdinera eta, azkenik, zuri bizira. Gero, lehertu egin zen, eta itsutzeko moduko argi distiratsu bat sortu zen. Simonen partikula ñimiño eta distiratsuak barreiatu ziren zeruan, giza petardo bat balitz bezala. Suziri gehienak ez bezala, txingar horiek berriro batu ziren, eta Simonen ohiko itxura hartu zuten.

Ondoren, Ilargiaren eguneko soslaiari erreparatu zion, eta kontzentratu egin zen berriro. Desagertu egin zen mutikoa, eta, berehala, Lawnvilletik Ilargiko airerik gabeko gainazal elkorra eraman zuen bere burua. Han, saltoka eta korrika ibili zen, poz-pez, hautsez betetako Ilargiaren gainazal guztian zehar oinatzak utziz. Handik pixka batera, ingurura begiratu, eta hasperen egin zuen, ingurua huts-hutsik baitzegoen. Egia esan, ez zen oso dibertigarria beste inor gabe.

Orduan sentitu zuen Simon Bloomek tiraldi bat barruan. Lurrera begiratu, begiak kliskatu, eta bere logelara eraman zuen berriro bere burua. Hantxe zegoen, idazmahaiko aulkian jarrita, begiak itxita, hura guztia imajinatzen.

Bai, egia da: Simonek buruan baino ez zituen egiten gauza txundigarri horiek. Energiatz bete zuen burua. Atleta profesional gehienak fisikoki bezain aktiboa zen Simon mentalki, baina askoz aukera gutxiago zeukan bere argazkia zereal-kaxa batean agertzeko.

Egia esan, ez zen etxetik atera goiz guztian, kanpoan eguraldi

ederra egiten bazuen ere. Gurasoak ez zeuden etxean semea kanpora atera eta eguraldiaz gozatzera animatzeko; bulegora joan ziren biak lana eguneratzera. Etxean zeudenean ere, grafikoak edo oharrak berrikusten aritzen ziren normalean.

Ama, Sylvia Bloom, publizitate-enpresa bateko exekutibo garrantzitsu bat zen. Jostunek egindako negozio-trajeak janzten zituen, eta galderak egin eta erantzunari ez itxaroteko joera zuen. Aita, Steven Bloom, astrofisikaria zen, eta erabat obsesionatuta zegoen unibertsoa aztertzearekin. Sylvia askotan txantxetan aritzen zen esanez Steven ez litzatekeela ohartu ere egingo ondoan bonba bat lehertuko balitzaio; baina hori ez zen egia: ziurrenik leherketaren zergatia aztertuko zuen.

Simoni ez zitzaion axola lanaren mende bizi ziren gurasoak izatea. Isilkorra zen etxean, eta eskolan, eta tarteko bidean. Ohituta zegoen inork berari jaramonik ez egitera: nahiko nota onak ateratzen zituen, irakasleek bakean uzteko modukoak, eta, normalean, ez zuen harroputzen arretarik pizten.

Idazmahaiko aulkian jarrita zegoelarik, Simonek begiak zabaldu zituen, eta tiraldi-sentsazio hori nondik ote zetorren galdetu zion bere buruari. Gelan barrena begiratu zuen, liburu, komiki eta jostailu zaharren apaletan: autoak, espazio-ontziak, dinosauroak, superheroiak; denetik zegoen. Filmen posterrak zeuden (gehienak, zientzia-fikziozko filmenak eta fantasiakoenak); astronauta batzuen argazkia (espazio-transbordadoretik kanpo ibilaldi espazial bat egiten); eta betidanik gustatu zitzaion M. C. Escher artistaren marrazki bat.

Escherrek ezinezkoa zena marrazten zuen: errealitatearen arauak modu harrigarrian okertuta. Simonen horma-irudiak *Erlatibitatea* zuen izena. Etxe baten barrualdea zen, non jendea gora eta behera dabilen angelu guztietan jarritako eskaileretan barrena. Pertsona batzuk erabat buruz behera daude besteekiko, baina beren eskailera angelu normalean balego bezala ari dira oinez denak.

Lehentxeago irakurtzen aritu zen liburuari begiratu zion Simonek: *Auto-stopgilearentzako galaxiarako gida*, Douglas Adams. Simonen liburu gogokoena zen. Arthur Dent izeneko gizon britainiar arrunt bati buruzko istorioa da: bidaia zirrargarri bat egiten du galaxian estralurtar batzuekin. Simoni ikaragarri gustatzen zitzaion, Arthur izan nahiko zuen eta.

Baina tiraldia ez zetorren ez liburutik, ez Escherren iruditik. Leihoaz bestaldeko zerbait zen. Simonek leihoa ireki zuen, eta orduan sentitu zuen brisa. Ez, *Brisa*. *Liburu* hitzarekin bezala, garrantzitsua zen B maiuskulaz idaztea.

Izan ere, hura ez zen ohiko haize-bolada bat. Lasaigarria eta zirrargarria zen, Simon inguratzen zuen heinean. Dar-dar eginarazten zion, eta burutazio eta aukerak ekarri. Munduko leku berezi eta ezkutu baten ikuspegi azkar bat ematen zion. Une batez, sentitu zuen benetan ari zela hegan, benetan zela suziri distiratsu bat, benetan ari zela llargira telegarraiata izaten... eta are gehiago. Edozer egin ahal izango balu bezala eta edozer gertatu ahal izango balitz bezala.

Brisa desagertu egin zen, eta Simon bere gelara itzuli zen. Baina ez zuen —ezin zuen— ahaztu sentipen hura.



## 2

## EGURALDI-ALDAKETA

Igandea zen. Zenbait erlijioek egun sakratutzat daukate igandea. Jende askok uste du igandea atsedean hartzeko eguna dela, eta soilik honelako gauzak egin behar liratekeela: erlaxatu, kirola ikusi, bizikletan ibili, madalenak egin labean edota arrainei amudun lokarriak bota.

Batasuneko kide gehienentzat, igandea bilera garrantzitsuak egiteko eguna zen; kanpotarrek ez zekiten ezer bilera horiei buruz. Nire elkartekoentzat, berriz, bilerak zelatatzeke garaia zen. Eta zelatatzen nituen Batasuneko kideentzat, igandeetan zirak behar ziren.

Lawnvillen, New Jersey, leku gehienetan maiatzeko egun eder bat bazen ere, Simon Bloomen etxearen inguruko kantoian bestelakoa zen eguraldia. Euria ari zuen Van Silas kale itsu eta isilean. Erruz ari zuen, gainera. *Euria goian-behean ari du* esamoldea motz geratzen zen; *goian-behean, erdian eta aldamenean* ari zuela esatea zehatzagoa da. Hain zen gogorra zaparrada, ezen Van Silas kaleko bizilagunak beren etxe atsegin eta lehorretan uzkurtuta baitzeuden, kanpora ateratzeko edo leihotik begiratzeko ere gogorik gabe.

Puntu urdin eta distiratsu bat azaldu zen galtzada bustian, bidearen erdi-erdian. Hiru metroko lerro bihurtu zen puntua, goraka

handitu zen, eta hiru metroko altuerako horma bat osatu zuen. Hiru metro altu eta hiru metro zabal izan arren, horma papera bezain mehea zen. Aldamenetik begiratzuz gero, ia ikusezina zen. (Jakina, bestela ere, ez zen askorik ikusten euri-zaparrada harekin, baina aipatu egin nahi nuen).

Sargune baten antzekoa zen horma, *Atea*, eta segundo gutxian distantzia handiak egiteko erabiltzen zuten Batasuneko kide askok; gainera, ate hori erabilita, gehiegizko abiaduragatiko isunak, espazio-ontzia aireratzeko unea eta hegazkinetako jatekoa saihesten ziren.

Pertsona batzuk Ate urdin eta distiratsutik atera ziren, banaka-banaka, kale bustira. Zira txanodunek euritik babesten zituzten, baina, hala ere, hotza zuten eta hezetasuna nabaritzen zuten; kostata zihoazen oinez mela-mela egindako kalean barrena. Haietako batek marrubizko txikle bat zuen ahoan, eta burbuila bat egiten saiatu zen, baina euriak eraman zion.

(Pena eman zidaten. Ni goxo-goxo eta lehor nengoen, eta nire txiklela mastekatzen ari nintzen poz-pozik. Mahats-zaporekoa zen.)

Kalearen amaierara heldu eta Dunkerhook basora sartu ahala, lasaitu egin ziren. Haien Ordenaren bilgune sakratua zen, eta lehor-lehorra zegoen. Kanpoko eguraldia ez zen onartzen Dunkerhook basoan.

Kanpoan, litekeena zen hodeiak egotea eta nahi adina zaparrada botatzea, baina euri-tanta bakar bat ere ez zen sartzen eremu hartan. Galdetu zenezake nolatan ez den, orduan, basoa lehortzen eta hiltzen, baina galdera inozoa litzateke. Izan ere, euria barrura

ez sartzeko ahalmena duen edozein basok izango du osasuntsu egoteko metodoren bat.

Azkena basora sartu zenean, Ate urdin eta distiratsua lurrean hondoratu zen; lerro bihurtu zen; ondoren, puntu; eta desagertu egin zen. Atertu egin zuen, iturria itxi balute bezala; behin Atea desagertuta, ez zegoen euriaren beharrik.

Soinean zira zeraman jendea, hankak arrastatuz, basora sartzeko bide nagusitik zihoala, Brisa atera zuen. Euriak utzitako hezetasuna lehortu zien Brisak, eta urduritasuna aldendu. Fresko-fresko sentitzen ziren orain, biziberriturik. Jendeak txanoak kendu, eta aire garbia arnastu zuen.

Inor ez zen konturatu gizon bat, soinean zira marguldu txanodun bat jantzita, bidetik aldendu zela oharkabean. Estropezuka joan zen zuhaitz eta zuhaixken artean, gainerakoek oinez jarraitzen zuten bitartean. Inor ez zuen inguruan, basoan, erori zenean, baina filosofoek nabarituko zuten soinu bat egin zuela. (Madarikazio bat zen, egia esan, baina soinutzat jo daiteke).

Gizon hura Ralfagon Wintroflina zen.

Gainerakoek bideari jarraitu zioten, eremu handi eta ireki batera heldu arte; han, gain lauko arbola-ipurdi lodi pila bat zegoen. Soilgunearen beste aldeko arbola-ipurdi bakar eta altuago bati begira zeuden ezarrita arbola-ipurdi haiek. Leku hura oso garrantzitsua zen jende harentzat. Hona hemen haren izen ofiziala: Ordena biltzeko, hausnartzeko, hitz egiteko, kontrolatzeko eta arbola-ipurdietan esertzeko Bilgune Handia. Dena den, “soilgunea” baino ez zioten esaten gehienek.

Bakoitza arbola-ipurdi batean jarri zen eroso-eroso. Arraro xamarra iruditu daiteke hori; izan ere, arbola-ipurdiak egurrezkoak izaten dira, eta, beraz, gogorak eta lauak, eta ezpalak ateratzeko baino ez dute balio. Dena den, haiek ez ziren ohiko arbola-ipurdiak. Nahiko bigunak eta erosoak ziren; aulki bigungarridun batean esertzea bezalakoa zen. Ezin ziren atzera bota, hori ez, baina nahiko ikusgarriak ziren baso baterako.

Handik puska batera agertu zen Ralfagon Wintroflin. Egia esan, *agertu* zela esatea askotxo esatea da: zuhaixka-multzo batetik atera zen errenka, arbola-ipurdi altuenerantz. Kontu handiz makurtu zen aulkiraino, eta zerraldo bota zuen bere burua aulkian.

Ziraren txanoa atzerantz bota zuenean, ez zirudien garrantzitsua; are gutxiago, beldurgarria. Azal zimurtuak, oker moztutako ile urdinak, ile kizkur urdineko bekainek eta begi gris eta lausoez nahasi-itxura ematen zioten. Okertu egiten zen esertzean, eta makurtu, oinez ibiltzean; arrastoz beteta zegoen kirten distiratsuko egurrezko makila bat zerabilen.

Makila hura zen (dagoeneko gure planetan bizi ez zen lagun zahar batek eman zion opari) Ralfagon zirudien baino garrantzitsuagoa zela adierazten zuen zantzua. Kirten obalatu metal paregabe batez egina zegoen, eta Esne Bidea galaxiaren mapa xehe-xehe —baina ñimiño— bat zeukan. Zehaztasun ikaragarria zuen, azken ilargia ere adierazten baitzuen, eta galaxian zerbait aldatzen zenean, kirtenean ere aldatzen zen.

Sekulakoa iruditu ala ez, Ralfagon talde horren burua zen. Fisikako Ordena ziren, eta “zaindari” esaten zioten Ralfagoni. Hala,

bada, Ralfagon Wintroflinek, unibertsoko gizaki boteretsuenetako batek, bilera bati ekin behar zion. Eztarria garbitu zuen, zuzen eseri zen, eta hatz bat belarrian sartu zuen.

Ordenako kideak zain egon ziren, Ralfagon belarrian aztarrika ari zen bitartean; igandero egiten zuen gauza bera.

—Badu inork kotoi-txotxarik? —galdetu zuen ahots karrankariz—. Brisak inoiz ez dizkit lehortzen belarrien barrualdeak.

la denek atera zuen txotx bana, eta bat aukeratu zuen.

—Hezea da, gero, euri hori, ezta? —galdetu zuen, txotxa belarrikanal bustira zeraman bitartean.

Inork ez zion erantzun, baina bera ez zen ohartu. Galdera erretorikoak egiteko ohitura handia zuen Ralfagon Wintroflinek.

—Askoz hobeto —esan zuen handik pixka batera—. Jarraituko dugu?

Gelditu egin zen. Bazekien zerbait garrantzitsua egin behar zuela... baina gogoratu egin behar horretarako.

—Eee, Eldonna, etorriko al haiz, mesedez?

Eldonna Pombina txiki eta sendoa Ralfagonengana joan zen, eta belarrira xuxurlatu zion.

—Hemen dituzu oharrak, jauna —esan zion, orri-eskukada bat ematen ziolarik.

—Oharrak? Zertarako behar ditinat, ba, nik... A, noski, noski. Eskerrik asko.

Eldonak baietz egin zion buruarekin, Ralfagonen ahazkortasuna-rekin kezkatu gabe. Ralfagon Wintroflin, Milnes Unibertsitateko lankideentzat, Ralph Winter irakaslea zen. Unibertsitate txiki eta xarmangarri hori Jerseyko iparralde guztian zen ezaguna, salmenta automatikoko makina bikainak zirela eta. Han, Eldonna Pombinak Donna Pom zela esaten zuen, eta Winter irakaslearen laguntzaile egiten zuen lan.

Bera arduratzen zen Ralfagonen fisikako eskoletan ikasleek egindako galderak erantzuteaz. Halaber, Ralfagonek ikasgela aurkituko zuela ziurtatzen zuen, eta, eguna bukatutakoan, etxerako bidea hartuko zuela.

Ralfagonek buelta eman zuen, eta oharrak pasatu zituen, berak nahi zuena aurkitu arte.

—A, bai. Ondo. Biler. Oso garrantzitsua. —Burua altxatu, eta Ordenako kideei begiratu zien.

—Eta horregatik gaude hemen, euria zeharkatu ondoren. Ea zaparrada madarikatu hori geldiaraz dezakedan.

Willoughby Wanderbyk eskua altxatu zuen arbola-ipurdiko eserlekutik. Neurri ertaineko gizon bat zen. Hala moduzko begiak eta ohiko aurpegiera zituen, baina, hala ere, gogor-planta zuen. Komandante, munduko lider edo, beharbada, soinketa-irakasle baten jarrera zorrotz eta gogorra zuen.

—Baina, Ralfagon, euriak helburu bat du: gu sartzen eta ateratzen ez ikustea kanpotarrek.

Ralfagonek baietz egin zion buruarekin, jakituriaz.

—Ondo, ba. Utzi egingo dut euria bilera amaitu arte, ados? Ederki. Zer ari nintzen esaten? A bai, bilera. Uste dut azkena izango dela. Mmm, kito euriaren arazoa orduan.

Fisikako Ordenako gainerako kideak marmarka aritu ziren pixka batean, zur eta lur; bien bitartean, Ralfagonek beste belarri-zuloa garbitu zuen patxadaz. Oso atsegina zen harentzat.

## ET, ET, ET!

---

Zer ari zen pasatzen? Lehendabizi, mutil kanpotar bat nabarmen azaldu zen nire kronikan, eta, orain, Fisikako Ordena amaitzera zihoan? Halakorik ez zen inoiz gertatu, behin ere ez Batasunaren historia guztian. Eta denok jakin behar zenukete historia dudala lanbide!

Zer esan nahi zuen horrek? Zer hondamendi ekarriko luke?

Unibertsoa kaos bihurtuko ote litzateke, hura mantentzeko Fisikako Ordenarik gabe? Zientzialari kanpotarrak ezinean arituko ote liriateke, zer egin jakin gabe, Ordenaren orientabide sotilik gabe? Gizateria osoa Aro Ilunean murgilduko ote litzateke berriro? Garrantzitsuagoa dena: beste lan bat bilatu beharko ote nuke? Naturari buruzko saioak kontatzen geratu beharko ote nuke, ez aurrera ez atzera?

Nire lasaitasun ospetsua desagertu egin zen. Zerbait egin beharra zegoen. Kontatzaileek egiten duten moduan ekitea erabaki nuen: beste txikle bat ahora sartu, eta begira jarraitu nuen, hurrengo ekintzarako prest (behar izanez gero).



### 3

## AGINTZEN DUTENAK

Ordenako kideak oraindik zurrumurru nahasi batean zeudela, atzeko lerroko kide altu batek jauzi egin zuen arbola-ipurditik. Mermon Veenie zen.

Mermonek ile iluna zuen, atzerantz orraztua; kopeta zabala eta bekain zorrotzak agerian uzten zizkiola. Haien azpian, begi ñimiñoak zituen: errotuladore magiko batekin margotutako puntu beltzak ziruditen, ikusteko erabiltzen diren gauzak baino gehiago. Baina ez zirudien Mermonek Ralfagoni zorrotz begiratzeko arazorik zuenik.

Ozen eta purrustaka hitz egin zuen; ematen zuen lepora salto egingo zizula hitz egiten amaitutakoan. Edo, umore txarrean baldin bazegoen, esaldia amaitu aurretik erasoko zizula.

—Adiskide, zeri buruz ari haiz? —marmar egin zion.

Ordenako kide gehienek kopeta ilundu zuten Mermonen errespetu faltaren aurrean; Ralfagonek hatz bat mugitu baino ez zuen egin.

—Eseri, mesedez, Mermon —esan zion lasai-lasai—, eta azalduko dut.

—Agian ez huke hik izan behar talde honen buru! —esan zuen Mermonek purrusta eginez—. Hasteko, nekatuta nagok hire zentzugabekeriaz; agian, bada garaia *nik* zerbait egiteko!

Hizketan ari zen bitartean, Mermonek ukabila astindu zion Ordenako buruari; benetako txinpartak atera ziren beraren hatz-koskorretatik. Inguruan zituen Ordenako kideek atzera egin zuten beren arbola-ipurdietan.

Ralfagonen aurpegiera barea aldatu, eta keinu bihurtu zen; ia ez zen mugitu, baina orain ez zirudien lehengo gizon oker eta ahul hura. Liburu urdin eta lodi baten ertza azaldu zen haren berokitik, eta basoak karraska egin zuen indarrez.

Ralfagonek hitz ulergaitz batzuk esan zituen; ematen zuen aldi berean atzeraka eta aurreraka hitz egiten ari zela kakahuete-gurina jaten zuen bitartean. Ez zegoen kakahuete-guririk, ordea; ez, Ralfagon formula bat esaten ari zen, fisikako lege bat kontrolatzen, alegia.

Mermon erantzuten saiatu zen, baina alferrik mugitu zuen ahoa: Ralfagonek hotsak egiteko gaitasuna kendua zion. Ordenako kide guztiek oihu egin zuten (Mermonek izan ezik, ezin baitzuen).

Ondoren, Ralfagonek beste formula batzuk esan zituen, eta hatzarekin keinu egin zuen. Mermon taldetik hiru metro atzera iraitzia izan zen, eta airean gora jaurtia kanoi-bala baten abiaduran. Bat-batean gelditu zen soilgunea baino askoz gorago, eta hantxe geratu zen esekita, besoak alferrik astintzen. Orduan, biraka jarria izan zen, Mermon formako ziba bat balitz bezala. Bat-batean gelditu

zen, eta igo zen baino azkarrago amildu zen; isilean oihu egin zuen, eta gorputz-adarrak astinduz jaitsi zen behearaino.

Ralfagonek klaska egin zuen hatzekin, eta Mermon bat-batean gelditu zen, abiada guztia galdua. Lurretik oso-oso hurbil geratu zen: pasatzen ari zen inurri baten antenak sudurra ukitu zion. (Inurriak oinez jarraitu zuen; basoko izaki gehienek bezala, ikasia zuen Ordenaren jardueri ez ikusiarena egiten). Ralfagonek hatza mugitu zuen, eta Mermon zutik geratu zen, lehen zegoen toki berean. Lehengo ile orraztua goraka zeukan orain, eta aho handia dardaraz, ez balu jakingo bezala botaka egin, negarrez hasi edo biak batera egin.

—Esan diat lehen ere, Mermon —esan zion Ralfagonek lasai baina zorrotz—; ez diat onartuko nire edo Ordenako beste edozein kideren aurkako mehatxurik. Orain, eseri, eta ondo portatu.

Mermonek bere gorputza arbola-ipurdi gainera erortzen utzi zuen, eta burua makurtu zuen penitentzia egin.

Ralfagonek alderantziz esan zuen lehengo formula, eta hitz egiteko gaitasuna itzuli zion Mermoni. Ondoren, erlaxatu, eta ohiko baldar-jarrera hartu zuen.

—Esaten ari nintzen bezala, ez dugu bilera gehiago egingo, bolada batean. Hori ez da *nire* erabakia. Zientzia Kontseiluak asteko bilera egin du gaur, eta bisitari berezi bat izan dugu —esan zuen kopeta ilunduz—. Administrazio Kontseiluko ordezkari bat kexaka etorri zaigu; gure Ordenarekin lotutakoak ziren kexa horietako batzuk. Zoriondu egin gintuen Bermudetako Triangelua konpondu genuelako, baina beste zenbait gai aipatu zituen; adibidez, Atlantidako porrota,

yetia, eta Slinky jostailuen<sup>1</sup> berrogeita bi kasu, ez baitziren iristen eskaileretan beheraino.

Willoughby Wanderbyk eskua altxatu zuen, eta, Ralfagonek buruarekin baietz egindakoan, hau esan zuen:

—Nahastuta dago. Atlantida orain dela mende asko hondoratu zen. Orain ez da garrantzitsua, ezta? Eta yetia... Elurretako gizon nardagarriez ari al zara? Izatekotan ere, Biologiako Ordenaren nahastea dira pizti horiek.

Ralfagonek hasperen egin zuen.

—Inork ez du ahaztu Atlantida. Horri buruzko Time Life liburuak jasotzen ditut oraindik ere. Bidaltze-gastuak lotsagarriak dira. Yetiari dagokionez, berriz, Gilio Skidowsa biologiaren zaindaria dio aurora borealaren fluxu elektromagnetikoaren ondorioa dela. Nire ustez, marketin-arazo bat da. Zer espero dugu, ba, *nardagarri* esaten badiogu zerbaiti? —Hasperen egin zuen berriro—. Kontseiluko ordezkariak Zientzia Ordenaren jarduera guztiak bertan behera utzi zituen egoera konpontzeko plan bat egin bitartean.

Ordenako kide gazte batek, emakume ilegorri polit batek, ezetz egin zuen buruarekin.

—Zentzugabekeria burokratikoa. Horrek zer esan nahi du? Gaur ezin dugula lanik egin?

Ralfagonek kokots zimurtuan hatz egin zuen.

---

<sup>1</sup> Itzultzailearen oharra: Slinky jostailua malguki helikoidal bat da, eskailera-mailak banaka-banaka jaisten dituen berak bakarrik.